

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	Bilboko Hezkuntza Fakultatea (UPV/EHU)
2. Sektorea:	Hezkuntza
3. Langile kopurua:	167
4. Webgunea:	https://www.ehu.eus/eu/web/bilboko-hezkuntza-fakultatea
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Ikuspegi historikotik, gure eskola Bilbon sortu zen, 1902an; goi mailako graduko ikasketak eskaintzen zituen orduan. 1962an, Arangoitira (Deustu) eraman zen eskola, eta Eskola Arrunt gisa jardun zuen, harik eta UPV/EHUn Irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Eskola gisa sartu arte. 2011ko irailean, eskola Arangoitik Leioako Campuseko eraikin berrira lekualdatu zen; eraikina César Azkarate arkitektoaren lana da. Azkenik, 2018ko urtarrilean, Bilboko lehengo Irakasleen Unibertsitate Eskolak Bilboko Hezkuntza Fakultate izena hartu zuen.</p> <p>Fakultatean, gaur egun, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Gizarte Hezkuntzako graduak eta Psikodidaktikako eta MUTAE master ofizialak ematen dira, bai eta beste berezko titulu eta masterrak ere.</p> <p>Ikerketa jarduera handia ere egiten da. Arlo guztietan daude ikertalde finkatuak, eta horiek oinarri dira gazte ikertzaileen karrera sustatzeko. Gainera, mugikortasun programa erakargarria ere badugu; bertan, erakunde arteko akordioak daude, SICUE, ERASMUS+, Amerika Latina eta beste programa batzuen esparruan.</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Ikasle, Gizarte Proiektzio eta Hizkuntzen Kudeaketako dekanordea (Aitor Iglesias)
Helbide elektronikoa:	bhf.ikasleak@ehu.eus
Telefonoa:	946017508

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Youehule: Youtuber lehiaketa
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Bilboko Hezkuntza Fakultatearen “bezeroak” ikasleak dira eta kezka handia dugu euskararen erabilerarekin; izan ere, nahiz eta gehiengoak euskaraz jakin erabilera datuak ez dira nahiko genituzkeenak. Euskararen erabilera sustatzeko hainbat ekimen sortu dira, horien artean bat Euskal Youtuber lehiaketa da. Proiektu honek Youehule du izena eta UPV/EHUko Aktibatu programan dago txertatuta.</p> <p>https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/aktibatu</p> <p>Helburua euskara kolokiala bultzatzea da, klasean erabiltzen den euskara akademikoa menperatzen dutelako, baina euren arteko komunikazio arrunta erdaraz egiten da gehienbat.</p> <p>Ekintza hau maila eta gela ezberdinetako ikasleek burutzen dute elkarlanean aste batzuetan zehar. Zenbait ikaslek euskararen erabilerari buruzko informazio bideoak sortzen dituzte, beste talde batzuek youtuberra izateko bideo-tutoriala sortzen dute; eta, azkenik, lehenengo mailako ikasleek, Komunikazio Gaitasunaren Garapena I ikasgaiaren barruan, lehiaketan parte hartuko duen youtuber-bideoa sortuko dute. Hau guztia, Youtubera igotzen da.</p> <p>https://www.youtube.com/channel/UCg0TKZvksmp2uStnXT6_4rg/videoes?app=desktop&sort=da&view=0&flow=grid&cbid=1</p> <p>Emaitzak zenbait kongresu akademikotan aurkeztu dira eta baita ikerketa batzuk argitaratu ere aldizkari zientifikoetan. Emaitzak erakusten dute ekintza hau egiten den bitartean euskararen erabilera igo dela ikasleen artean.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

Artikulu zientifiko bat goi mailako aldizkari batean, mundu mailan inpaktua duena:

https://mdpi-res.com/d_attachment/sustainability/sustainability-14-06242/article_deploy/sustainability-14-06242.pdf?version=1653042807

On-line egindako aurkezpen bat CINAIC 2021 kongresuan:

<https://www.youtube.com/watch?v=QwgEl86iLh4>

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA